

Ikasketak eta lana bateragarri egin Oria Egoitzan

Lanak sukaldaritza, gozogintza,
garbiketa eta arropa garbitze
alorretan egiten dira

2006 Api 2

“Oria” Ikasketa eta Lan Zentro bat
da: ikasleen egoitza bat, non
ikasketak bateragarri egiten diren bi
ordu lan ordainduekin eguneko eta
astebururen batekin hilean. Horrela
ostatua ordaintzen dute eta beren
gastuentzat ere gelditzen zaie. Lanak

sukaldaritza, gozogintza, garbiketa eta arropa garbitze alorretan banatzen dira. Oriara nazio osoko neska gazteak datoz.

Bakoitzak nahi duena ikasten du: batxilergoa, LH, unibertsitatean... bere zaletasunen arabera. Sartzeko gutxieneko adina 16 urte dira.

Pasta, patata, eltzekariei... puntua bilatzen ikasten dute

Egoitzan egiten diren lanetan, era egokienean egiten erakusten dieten monitoreak dituzte. Gero ere, bizitzan zehar lan horiek laguntza handikoak izango zaizkie. “Hemen lan egiten duten ikasleei sukaldaritzako teknika desberdinak erakusten diet. Kurtsoan zehar pasta, patata, haragi, arrain, eltzekariei... puntua bilatzen ikasten dute. Sartzerakoan ez dute ezagutza berezirik behar; hemen dena hasieratik erakusten diegu eta denborarekin erraztasuna lortzen

dute” dio Esther Patrociniok,
sukaldaritzako monitorea.

“Zeure burua antolatzen erakusten dizute”

Leire Ovallek, Oria egoitzako ikasle
batek dioenez “zeure burua
antolatzen erakusten dizute, eta lan
egin behar bada ere, badakizu bi
ordu horiek hartuak daudela, eta
gelditzen zaizun denboran ikas
dezakezu”.

Adriana Sobejanok, ISSAko 2. urteko
ikasleak, egoitza hau aukeratu zuen
lana eta ikasketak bateragarri
egiteak bere gurasoek egoitza
ordaindu behar ez izateko aukera
ematen ziolako. Adrianak dioenez,
hemen denbora ondo erabiltzen eta
lana eta ikasketak bateragarri egiten
ikasi du.

“Officean lan egiten dut. Gozogintza,
gosariak, meriendak eta aperitiboak
prestatzen ditugu. Gauean denon

artean, ontziak jasotzen ditugu.
Katea eginez, hiru ordu laurdenetan
bukutzen dugu” Adrianak dio.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/ikasketak-eta-lana-
bateragarri-egin-oria-egoitzan/](https://opusdei.org/eu-es/article/ikasketak-eta-lana-bateragarri-egin-oria-egoitzan/) (2026
Mar 11)